

Identitate kolektiboak

Berauen analisirako zenbait ohar

Mikel Arriaga Landeta
Soziologoa

Gizakiok giza taldeetan bizi gara eta hauen barruan harremanak ditugu. Elkarrekintza horretan geure burua identifikatu eta baloratu egiten dugu eta geure indibidualtasunaren berri izaten dugu. Era berean giza taldeek mundua ordenatu eta sailkatzen dute bere identitate eta kokapen propioa aurkitzeko asmoz; asmo horretan beste giza taldeek eskaintzen dizkieten erreferentziak ezinbestekoak egiten zaizkie bere muga, balore eta elementu afektiboak finkatzeko. Identitate sozial sendoen eratze-prozesuak konplexutu egin dira gizarte modernoan, hala eta guztiz ere elkarrekin egoteko joerak bizirik dirautela erakusten digute era eta mementurik ustegabekoenetan.

Human beings live and make contacts within groups. In this interaction we become acquainted with our own individuality. In the same way, human groups classify the world with the intention to find the boundaries of their own identity; in this attempt, the references that other groups provide them are very useful to set limits, evaluate capacities and consolidate affections. The modern western society has greatly complicated the task to build solid identities; even so, the tendencies to *be together* appear obstinately in the most unexpected moments and in the most diverse forms.

I. Identitateen analisirako zenbait ohar

Hurbilketa soziologikoa

Errealitate sozial baten konprenzioa ez da agortzen objektibitatearen eremutik kontzientziaren eremura jaisten ez den bitartean. Peter Berger eta Thomas Luckmann, Alfred Schutzen ikuspegi fenomenologikoarekin datoz bat eta hauxe azaltzeko klasikoei begiratzen diete:

Durkheimek esaten digu: *Fenomeno sozialak gauzak balira bezala kontsideratzea lehenengo eta oinarrizko araua da*. Eta Weberrek dio: *Soziologia eta Historiaren objektua akzioaren esangura subjektiboaren konplexua da*. Baieztapen bi hauek ez dira kontrajarriak. Gizarteak, efektiboki, faktizitate objektiboa dauka. Eta gizartea, modu berean, esangura subjektibo bat erakusten duen aktibitatearen emaitza da. Eta bide batez esan dezagun Durkheimek azkenengo hau ezagutzen zuela Weberrek lehenengoa ezagutzen zuen bezala. Gizartearen izaera bikoitza da, faktizitate objektiboa eta esangura subjektiboaren terminoetan, eta hauxe da hain zuzen bera *errealitate sui generis* bihurtzen duena, Durkheimen beste oinarrizko termino bat erabiltzeagatik (Berger & Luckman 1973: 35).

Kolektiboak osatzen dituzten indibiduoak aztertzeko aipaturiko analisi bikoitza egitea nahitaezkoa da, identitate kolektibo bat errealitate baten definizioa baita, sinesmen eta sentimenduz alde batetik eta faktizitatez bestaldetik osatutako definizioa.

Psikologia Sozialetik datorkigun proposamen interesgarri bat

Henri Tajfel (1984) *kategorizazio*

soziala deitutako prozesuan hasten da eratzen identitate kolektiboa. Prozesu honen barruan gizakiak bere ingurune soziala ordenatu egiten du eta inklusio-esklusio espazioak eratu egiten ditu bere ulermen-egituran.

Identitate kolektibo guztiak ez dira ezaugarri berdinez apaintzen. Ikuspuntu ezberdinen arabera sailkapen ezberdinak egin daitezke, esate baterako, Mertonek (1980) *kolektibitate* eta *talde* kontzeptuen artean oinarrizko bereizketa egiten du, lehenengoaren ezaugarri nagusia parte izatearen zentzu sakona izango litzateke eta bigarrenak aurrez aurreko harreman estu eta normatuagoa gehituko lioke lehenengoari. Nisbetek ere (1975) beste tipologia zehaztu bat eskaintzen digu *agregatu estatistikoa* eta *agregatu soziala* kontzeptuez baliatuz.

Baina harira zetozkigun aipamen hauek eginda goazen guri interesatzen zaigun arazoaren mamira eta Tajfelekin bat etor gaitezen baieztatzen duenean:

Identitate soziala da bere burua kategoria sozial berean kokatzen duen, nolabaiteko inplikazio emozionala amankomunean duen eta bere giza taldearen ebaluazio eta bere partehartzeari buruzko akordio sozialaren graduren bat lortzen duen indibiduen multzoa (Tajfel & Turner 1990).

Definizio honetan hiru dimentsio ezberdin batzen dira: kognitiboa, indibiduoari bere partehartze soziala erakusten diona; baloratiboa, taldearen iritzi, gaitasun eta abar aipatzen duena; afektiboa, emozioaren esparruan mugitzen dena.

Hurbilketa kontzeptual laburragoan, baina intentzio eta intentsitatez beteta, Tajfelek Emerson historilariaren *nazio*

definizioa bere gain hartzen du eta edozein motatako giza talderi zabaltzen dio. Ikus dezagun Emersonnek diona:

Nazioari buruz egin daitekeen baieztapenik sinpleena hauxe da: nazioa da nazio sentitzen den gizabanakoen multzoa; eta baliteke azterketa zehaztuagoa egin ondoren definizio definitiboa izatea ere¹.

Definizio honetan errealitate sozialak sortzeko subjektibitateak duen gaitasuna goraiatzeko eta arreta berezi honek benetan garrantzi aparta izan behar du giza kolektiboak ikertzen dituen ikertzaile guztientzat.

Gu sentitzen den edozein taldek bere burua identifikatu, diferentziatu eta errekonozimendua lortzeko *bestea* behar du. Muga fisiko eta sinbolikoen trazaketa eta objektibotzat ematen diren ezaugarri diferen-tziatzaileak ezinbestekoak zaizkio bere sentimendu kolektiboaren funtsari eta,aldi berean, bestearekiko konparaketak egiteko beharrari.

Honela, *kategorizazio sozial* prozesuaren ondoren, *konparazio sozial* prozesua identitate sozialaren prozesutik bereiztezina da, hain zuzen ere:

Taldea bihurtzen da talde, patu edo ezaugarri amankomunak dituela autokonsideratzen duen zentzuan, batez ere beste talde batzuk bere ingurugiroan bizi direlako (Tajfel 1984: 295).

Bere burua konparatzen hasten denean talde batek erronka handiari

aurre egiten dio, Festingerrek dioen bezala (1954) gizabanakoa autokon-tzeptu mesedegarriaren bila dabil eta bere taldeak hura aurkitzen laguntzen ez badio taldea uzten edo aldarazten saiatuko da. Bestaldetik taldeak saiatu behar du bere osotasuna babesten, integritatea mantentzeko jokoan ipintzen dituen estrategiarik arruntenak hauexek izanik: irabazle aterako den konparaketak egitea, diferentziazio positiboaren lana, taldearen ezaugarrien balorazio negatiboari buelta ematea.

Unibertso sinbolikoaren eratze- -prozesua eta Erreferentzi Taldea

Kategorizazio- eta konparazio-
-prozesuei garrantzia emateak Konozimenduaren Soziologiara, konkretukiago Fenomenologiara, garamatza. Korrante soziologiko honentzat errealitatea eratze soziala baino ez da. Gizakiak beste giza-kiekiko joera du, bere buruaren onarpena eta beste pertsonekin mundua konpartitzea beharrezkoa zaio. Asmo horretan

gizabanakoak errealitatearen definizio omnikonprentsiboak, bizitzari zentzua emateko gai direnak, behar ditu. Definizio omnikonprentsibo hauek edozein gizarte batuta mantentzeko behar-beharrezkoak dira eta, arrazoi berberetatik, edozein egoera sozial funtzionamenduan mantentzeko. Denek uztertuta gizabanako edo gizarte baten *Unibertso Sinbolikoa* osatzen dute (Berger & Berger & Kellner 1979: 19).

Indibiduo batek unibertso sinboliko bat, zeinek munduaren ikuspegi tinkoa

1. Emerson R., *From empire to nation*, Harvard University Press, Cambridge (Mass.), 1960, 102. Tajfelek (1984) aipatuta.

eta bere buruaren kokapen eta rola mundu horretan eskaintzen dion, konpartitzen duenean, edozein asimilazio, batze edo muga disoluzio-prozesuaren aurrean susmagarri agertzen da, prozesu horrek bere *gu* taldeak ematen dion segurtasun-ordena mehatxatzen du eta. Neurri handi batean talde etniko, politiko edo beste motatako talde minoritarioek erakusten duten independentzia galtzearen kontrako oposizio bortitzak egoera horretan gerta litekeen zentzugalera beldurgarriarekin lotura handia du.

Unibertso sinbolikoaren eratze-prozesua erreferentzia eskuratzeko prozesu baten barruan ematen da. Bergerrek Mertonen *Erreferentzi Taldearen Teoria* gorai patzen du honako hau baieztatzeko:

Erreferentzi taldea kolektibitatea da zeinen iritzi, konbikzio eta ekintza-metodoak erabakigarriak diren, gure iritzi, konbikzio eta ekintza-metodoak finkatzeko. Erreferentzi taldeak gure burua konparatzeko eredu bat eskaintzen digu. Espezifikoki errealtate sozialari buruzko ikuspuntu partikularra eskaintzen digu. Ikuspuntu hau ideologiko ala ez ideologikoa izan daiteke, baina edozein kasutan talde partikular honekiko gure lealtasunaren zati eta eremua izango da (Berger 1973: 167).

Nisbeten iritzi indibiduoaren sozializazio-prozesua erreferentzi talde suzesiboen arauen barneraketa baino ez da.

Mertonek kontestu teoriko honetan garrantzitsua den lan soziologikoa proposatzen du: balorazio eta auto-estimazioko prozesuen determinante eta ondorioen sistematizazioa. Prozesu horietan indibiduoek beste indibiduo edo talde batzuen balore edo

arauak sistema konparatzailez hartzen dituzte. Pribazio errelatiboa eta sozializazio aurretzailea kontzeptuak, taldearen izaera zabala ala itxia, taldekide nominala eta taldekide periferikoen arteko bereizketa, kanpoko erreferentzi talderantz orientatzen den indibiduoak aurkitzen dituen zailtasunak, indibiduo baztertuaren figura, erreferentzia positiboa izatek erreferentzia negatiboa izatera pasatzen den taldea, ernegari figura... eta Mertonek aletzen dituen hamaika kuestio unibertso sinbolikoa aztertzeko oso baliogarriak dira.

Identitateari buruzko azterketaren zailtasunak

Identitate indibiduala edo kolektiboaren eratze-prozesuak aztertzea ez da lan erraza izaten, gaur egunean oso konplexuak baitira. Konplexutasun honen arrazoiak gure gizartean gertatu diren aldaketa estrukturalekin zer ikusi handia dauka, hain zuzen ere Mendebaldeko gizartearen prozesu modernizatzaileak gizakiaren harreman-sisteman sortu dituen aldaketa estrukturalekin eta guzti honek kontzientziarengan izan duen isladarekin.

Gizarte modernoek indibiduo-entzako harreman-inguruen eskaintza ugaldute eta hau dela eta identitate sendoen eratze-lana askoz zailagoa da. Erlazionalitate honek, zeinek bizimodu migratorioaren esperientzia hartzen duen, moldakor, aldakor eta muga meheko diren identitateak sortzen ditu. Gaur egungo gizarte aurreratuak gizakiaren identitateak gero eta mami kolektibo txikiagoa eta subjektibitate indibidualaren aportazio handiagoa ditu; horrexegatik giza taldeekiko ematen diren adhesio-prozesuek gero eta izaera iragankor

eta azalekoagoa izaten dute.

Esfera publiko eta pribatuen zati-keta eta konplexutzeak erakusten dizkiote indibiduoi bere errealitate-definizioaren ahulezia eta errealitate horren barnean bere kokapen propioaren ahulezia. Indibiduen eta indibiduo eta taldeen arteko aldaketa estruktural honek exigitzen dizkie indibiduoari, Norbert Eliasen esanetan,

arreta handiagoa, autorregulazio-era kontzienteagoak eta bizitzan aritzeko eta mintzatzeko espontaneitatearen murrizketa, harremanen maneiari dagokion esparruan (Elias 1990: 235).

II. Modernitatea eta indibidualismoa

Gaiaren gaurkotasuna

Azkenotan indibidualismoari gizarte modernoaren gaitz guztien erantzukizuna leporatu zaio artikulu periodistiko eta lan soziologiko askotan; dena den, indibidualismoa ez da modernizazioaren asmakeria.

Izan ere, antzinako Grezian gizarteekiko independentzia eta indiferentzia predikatzen zituzten pentsamendu-korrante garrantzitsuak zabaldu ziren, ohitura eta arau sozialak bazterrean uzteak gizakiari zoriontasuna ekar zekiokoelakoan egonik. Sinopeko Diogenesek (-413.etik -327.era), pentsamendu platonikoaren garaikide eta kritikatzaila, harmonia pertsonala lortzeko naturaren legeen eredu jarraitzea proposatzen zuen.

Alexis de Tocquevillek (1982) joan den mendeko Iparramerikako gizarteari buruz egin zuen analisi zorrotza oraindik indibidualismo modernoaren

azterketaren aurrekari pribilegiatua kontsideratzen da. Egileak beldurra zion bizitza sozialaren homogeneotzeari, bere ustez honek ekarriko zuen herriaren masifikazio-prozesuak gizabanakoa izaki berekoi eta asozial bihurtuko baitzuen.

Berdintze-prozesu hori ez da suertatu, Tocquevillek susmatzen zuen joera berdintzailea ez da azken mende hauen ezaugarri nabarmenena, baina Iparramerikan aztertutako indibidualismoak eta beraren inguruan sortutako galderek gaurkotasun osoa dute gaur egun.

Esandakoaren adibide gisa Daniel Bellen burutazioak har daitezke (1982). Kapitalismo estatubatuarrari legitimitatea ematen zion lan-sistema moralak –Weberren etika protestantea– porrot egin du, eta ordezkio balore kultural etikoen faltagatik indibidualismo hedonista mota batek haren lekua hartu du. Errealitatea ikusteko ikuspuntu horretatik gizartea kultura motibatzaile eta bateratzailerik gabe dabil. Bellen ustez, Durkheimen dikotomia klasikoa erabiliz, *profanoak*, *sakratua* baztertu du eta desoreka honek gizartearen lokarri moralaren deseuztapena eta egoismoaren inperioa ekar litzake.

Berehalako ongitasuna lortzea, kontsumo-gaitasuna handiagotzea eta aktibitate amaitezin horretan *ego*-a birbaloratzea, deskribatutako koadroan izar nagusiak izango lirateke. Begirada ilun hau osatzeko Lipovetskyk (1990) eskaintzen digu azkeneko osagaia: esperientzia erlazionalaren iragankortasuna. Innobazio-prozesuak bizitzari inprimatzen dion abiadurak egunean egotearen erronkaren aurrean jartzen ditu indibiduoak, eta modu honetan *orainaldi aldakorra* denboraldi domi-

nante bihurtzen da. *Modaren inperioak* ez du tradizioa desagertarazi, baina bere botere kontrolatzailea murriztu du.

Laburbilduz, ikuspegi honetatik, aisia, kontsumo eta lan-arrakasta unibertso indibidualistaren helburuak dira, nahitaezko erreferentziak *autoerlaziorako*. Bilatze amaitezin honen barnean *oztopoen egoneza* (Bellah 1989) estrategia bihurtzen da; tradizioak, komunitateak eta konpromezu publikoak oztopo bilakatzen dira.

Baina gure gizarte aurreratuetako gizaki indibidualista zoriontsua denik ez du ematen, bere lasterketa bakar-tian bakarrik sentitzen baita nora doan jakin barik. Norbert Eliasen (1990: 231) ustetan harreman emozionalak mantentzeko beharrea eta ezgaitasunean datza indibidualistaren tragedia eta

hau ez da arazo isolatua, indibiduala, jarrera soziala baizik, egungo emakume eta gizonezkoen pertsonalitate-egituraren oinarritzko ezaugarria.

Lokarri soziala

Arazo sozialak irizpide moralen bidez epaitzeak ez dauka inolako zentzurik analisi soziologikoan. Are gehiago, antzinako gizakiaren eta gizarte modernoko gizakiaren zoriontasunari buruzko espekulazio konparatzaileek ez dute lan soziologikoarekin zerikusirik. Aldaketa estrukturalak bizitza sozialean duten eragina ulertu, eta *ni-aren eta gu-aren arteko oreka atsegina* (Elias 1990: 232) lortzeko arrastoak aportatzea izan litezke helburu egokiagoak.

Haren proposamen eta intentziona-

litate politikoa alde batera utziz eta begirada nostalgikotik ihes eginez, gorago aipatutako Tocquevilleren kezka gaurkotasan osoz dirau Soziologiaren munduan, alegia: sozialitate plural eta bateratzaile, original eta sortzailea, bilatzeko kezka. Durkheimen (1992: 398) halaxe adierazten zuen:

...trantsiziozko eta kaxkarkeria moraleko fasea zeharkatzen ari gara. Iraganaldiko gauza handiek, gure gurasoak gogobetetzen zituzten gauzek ez dute gudan su berdina pizten eta haien lekuan ez da ezer sortu. Hitz batez, jainko zaharrak zahartu edo hil egiten dira eta oraindik ez dira berriak jai.

Komunitarioagoak ziren garaietan *lokarri soziala* mito eta tradizioaren bitartez agertzen zen, mota guztietako errito eta zeremoniak erabiliak ziren kolektibitatearen arima erreprezentatzeko. Gizarte modernoetan tradizioa eta honen agerpenak behera doazen neurrian arima kolektiboa hoztu egiten da eta intseguritatea indibiduoek jabetzen da. Durkheimen iritzian (1992: 397)

ez dago gizarterik bere batasuna eta bere pertsonalitatea osatzen dituzten sentimendu eta ideiak mantendu eta berresteko beharra sentitzen ez duenik.

Sozialitatea hil ote?

“Oztopo bariko *ego-a*”, “gu bariko *ego-a*”, “modaren inperioa” eta beste hainbeste kontzeptu erakargarrik etorkizun larria margotzen digute zentzu absolutuan hartzen baditugu. Postmodernismo delakoan hainbat eta hainbat autorek aurreratu digute sozialitatearen amaiera, gizarte mo-

dernoetan espezifiko diren joerak orokortuz.

Errealitatean gure gizarteak, beste guztiak bezalaxe, *ni*-aren eta *gu*-aren arteko tentsioan bizi dira, *ni* hutsaren eta *ni* integratuaren artean, tradizio eta berrikuntzaren artean. Ez du ematen tentsio hori kaltegarria denik, kontra-koa baizik, indibiduo eta gizarteari, askatasuna eta konpromezu etikoari komeni zaie. Tentsio hau polo bate-rantz destentsatu egiten denean alerta pizten da, hauxe izan daiteke kasua. Arrazionalizazio teknikoaren bultzadek baztertuta jainkoak kinka larrian aurkitu dira eta arimak asaldatu egin dira.

Hala eta guztiz ere, prozesu modernizatzaileak arimak dauzkan segurtasun eta babes emozionalaren irrika eta beharrak ez ditu desagertarazi, eta hauek giza harremanetan eta giza taldeetan bakarrik sortzen dira. Makina bat indibiduo beren bizi beharra eta eskaintzen zaien harreman-markoaren arteko distantziaren kontradikzioan bizi da, eta kontradikzio honek intsegritatea, nerbiosismoa eta intsatisfakzio ikaragarria sortzen dizkie, oreka lortzeko asmoz autorrepliege-estrategiara jotzen dutelarik; halaxe dimentsio profesionala, aisia eta kontsumoa helburu bihurtu dira jende asko-rendako, egia da. Baina egia da baita neurri berean, *elkarrekin egoteko* joerak, era batean edo bestean, lehenago edo beranduago, han eta hemen, gizakiaren nukleo esentzialaren parte dela erakusten duela. Modernitatearen eredu ideologiko, politiko eta sozialaren krisialdi larrian agertzen diren mugimendu eta leherketa sozialak dira esandakoaren lekuko.

Bestaldetik, amaitzeko, betiko elkartze-erei atxikita gaude² eta sarritan gaur egungo errealitateak eskaintzen dizkigun sozialtasunaren era berriak ez ditugu behar den legez kontutan hartzen, agian orain arte erabili ditugun makrosistema eta makroegituren eskemetan kokapen zaila dutelako, batzuetan gure aurriritzi politiko eta moralak ere gure begien aurrean tartekatzen direlako.

Izan ere, krisialdian dagoen Mendebaldeko gizartearen inbokazioak ez digu oihartzun unibokorik bueltatzen, zorionez. Indibidualismoak berak ere ezin du paradoxatik ihes egin. Indibiduo tronuan ipintzean bere dignitatearekiko begirunea eta, aldi berean, autokontserbazio-instinto hobbesianoa eta gerrarako dispozizioa sortzen dira.

Elkartasuna, sozialitatearen kontzeptu funtsezkoa, ez da desagertu kaosaren profeta modernoek aurreratzten zuten bezala, nahiz eta bere agertzeko erak aldatu diren. Militantismoaren orde, eta parean askotan, azaleko konpromezua hedatu egiten da, ekintza heroikoari errebindikazio ludikoak tokia hartzen dio neurri handi batean, eta hortaz, egon eta egiteko era desberdinen eskutik giza eskubideen aldeko defentsa edo sentsibilitate ekopazifista zabaltzen ari dira.

Emakumezkoen errebindikazio identitarioetan edo erresistentzia etnikoan errekupeazio komunitarioaren nahiak aurki ditzakegu maiz, akzio eta organizaziorako langile-gatazkek ere erabiltzen dituzten era komunitarioak ahaztu barik.

2. Ikusi oso iradokorra den Maffesoli 1990.

Sinplekeria alde batera utzita, gizarte konplexu honi begirada zorrotza zuzentzen diogunean, joerak eta espezifikitateak kontutan harturik, konplexutasuna, kontradikzioa eta

paradoxa dira nagusi. Beraz indibidualismo modernoaren bokalean ez du ematen berekoitasun hutsak itxaroten duenik.

Bibliografia

- Bell, D., (1982): *Las contradicciones culturales del capitalismo*, Alianza, Madril.
- Bellah, R. et al., (1989): *Hábitos del Corazón*, Alianza, Madril.
- Berger, P., (1973): *Introducción a la Sociología*, Limusa, Mexiko.
- Berger, P., Berger, B., Kellner, H., (1979): *Un mundo sin hogar. Modernización y conciencia*, Sal Terrae, Santander.
- Berger, P.L., Luckmann, T., (1973): *La Construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Durkheim, E., (1992): *Las formas elementales de la vida religiosa*, Akal, Madril.
- Elias, N., (1990): *La Sociedad de los individuos*, Península, Bartzelona.
- Festinger, L., (1954): "A theory of social comparison processes", *Human Relations* 7.
- Lipovetsky, G., (1990): *El imperio de lo efímero*, Anagrama, Bartzelona
- Maffesoli, M., (1990): *El tiempo de las tribus*, Ikaría, Bartzelona.
- Merton, R.K., (1980): *Teoría y estructuras sociales*, FCE, Mexiko.
- Nisbet, R.A., (1975): *Introducción a la Sociología. El vínculo social*, Vicens Vives, Bartzelona.
- Tafjel, H., (1984): *Grupos humanos y categorías sociales*, Bartzelona.
- Tajfel, H., Turner J.C., (1990): "La Teoría de la identidad social de la conducta intergrupala", in *Lecturas de Psicología Social, Selección de J. Morales*, Alianza, Madril.
- Tocqueville, A. de, (1982): *La democracia en América*, Alianza, Madril.